

DIRU SARRERAK

Gure diru sarrera nagusiak honako hauek izango dira eta diru sarrera orokorraren ehunekoak honela geratuko litzatezke:

- **%50, bazkideen ekarpenak:** Bost bazkidez osatutako enpresa da, bazkide bakoitzak 5.000€ ekarpena egingo dugu beraz 25.000€ eurokoa izango da hasierako ekarpena.
- **%10, crowdfunding:** Interneten web orri bat irekiko dugu pertsonen naiz enpresek gure produktua ezagurazteko eta ondorioz nahi duenak aportazioak egiteko.
- **%15, estatuko diru laguntzak:** Estatuan, ekintzaile gazteentzako dauden diru laguntza desberdinak arakatu eta eskatuko ditugu. (www.injuve.es ...).
- **%10, euskadiko diru laguntzak:** Euskadin nahiz gure eskualdean ekintzailetza bultzatzeko diru laguntzak ere badaude eta eskatuko ditugu esateko (lanbide, bilbao ekintzak....).
- **%15, jardueran sortutako diru sarrerak:** Gure jarduera ekonomikoa aurrera doan heinean diru sarrerak jasotzen joango gara. Hasiera batean ez dugu banku kreditu bat eskatzeko aurreikuspenik, hala ere ez dugu bide hori baztertzen.

